



LARRUAZALPEKO DESFIBRILADORE AUTOMATIKOA EZARTZEKO INFORMAZIO-ORRIA

Zertan datza prozedura?

Xifoide apofisiaren eta ezkerreko erdiaxilarraren eremuan ebakidura txiki bat egin ondoren, larruazalaren azpian gailu bat jarriko da, toraxaren larruazalaren azpian dagoen elektrodo bati lotuta, ohiko desfibriladore automatiko ezargarria (DAI) ez bezala, horrek sarbide baskularra behar baitu bihotz-barrunbeen barruan elektrodoa ezartzeko.

Inplantearen ondoren, ohikoak dira min arinak zauriaren inguruan, eta bertan zentimetro gutxiko orbaina geratuko da.

Nola prestatu behar dut probarako?

Beharrezkoa da BARAURIK egotea proba egin baino 6 ordu lehenagotik gutxienez.

Gosariko ohiko botikak ur pixka batez har ditzakezu.

Medikazio antikoagulatzailea hartzen baduzu (sintrom, warfarina, dabigatran, apixaban, erribaroxaban edo edoxaban), medikazio hori nola eman berariaz adieraziko dizute.

Diabetikoa bazara:

- Aurreko gauean ohikoa den intsulina-dosia hartu.
- Gosarian ez duzu diabetesaren aurkako pastillarik hartuko.
- Prozeduraren aurretiko INTSULINA AZKARRA ez hartu.
- Goizean intsulina basala hartzen baduzu (Levemir, Degludek, Glargina...), hartu ohiko dosia PROZEDURAREN ONDOREN.

Hortzordea baduzu, harrera-solairuan ospitaleratzean kendu beharko duzu.

Non egingo didate inplantea?

5. solairuan, AUO Txagorritxuko D eremuan

Nola egingo didate prozedura?

Sistema hau ezartzeko, anestesia lokala eta sedazio sakona erabili behar dira, pazientearen ezaugarriak zein diren. Horregatik, anestesista batek balioetsiko du.



Ospitaleratze-unitatean hartuko zaituen erizainak zain-bide bat jarriko dizu, eskuineko besoan ahal dela, prozeduran zehar behar izan ditzakezun botikak emateko.

Ohatilan etzango zaituzte harrera-gelan emango zizuten ohe-atorra jantzita, eta beharrezkoa denean soilik biluztuko duzu zure gorputza. Prozedura osoan zure bihotzaren jardueraren erregistroa ikusteko elektrodoak jarriko dizkizute, baita tentsio arteriala hartzeko mahukatxo bat eta atzamarrean saturimetro bat ere.

Ondoren, oihal kirurgiko bat jarriko dizute zure gorputza estaltzeko, eta inplante-gunea soilik agerian utziko dizute. Bertan, anestesia lokala jarriko dizute ziztada egingo den eremuan, prozedura mingarria izan ez dadin.

Inplantean, normalean, sistemaren funtzionamendua egiaztatzen da, eta, horretarako, beste proba batzuen artean, arritmia bentrikularrak eragin behar dira.

Prozeduraren iraupena aldakorra da, 1-2 ordu ingurukoa, eta pazientea ohean egon beharko da ebakuntzaren ondorengo 2-4 orduetan.

Zer egin behar dut probaren ondoren?

Ospitaleratuta egongo zara hurrengo 24 orduetan.

Ezingo duzu jan proba egin eta 2 ordu igaro arte.